EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

elika
Fundación Vasca para la Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa

DESKARGATU PDF

# ontrol ofiziala

## Abeltzaintza ustiategietako higienearen kontrol ofizialerako programa

Abeltzaintza ustiategietan bete beharreko higiene-betekizunen **kontrol ofiziala** arlo horretako eskumena duten agintaritzek egiten dute, betiere **Abeltzaintza ustiategietako higienearen kontrol ofizialerako programa**k ezarritako irizpideak oinarritzat hartuta.

Xedea da abeltzaintza ustiategi bateko higienea kontrolatzerakoan aintzat hartu behar diren oinarrizko alderdi guztiak **kontrol bakarrean bateratzea**.

Programa horretan honako hauek daude jasota, besteak beste: **abeltzaintza ustiategietako higieneari** dagozkion alderdiak, **animalien osasunaren** oinarrizko kudeaketa, **azpiproduktu**en kudeaketa, **albaitaritzako sendagaien** erabileraren kudeaketa eta ustiategiko derrigorrezko erregistroen kudeaketa **dokumentala**.

Higiene-programa **Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Plan Nazionalean (PNCOCA)** jasota dago, hau da, Espainian **elikakate osoan zehar egiten diren kontrol ofizialeko** sistemak deskribatzen dituen dokumentuan, produkzio primariotik hasi eta azken kontsumitzailearentzako salmenta-puntuen artekoa.

**Abeltzaintza ustiategietako higienearen kontrol ofiziala egiteko programa nazionala 2018 – MAPA**

**Euskadiko abeltzaintza ustiategietako higienearen kontrol ofiziala egiteko programa – EJ**

## Behi-, ardi- eta ahuntz-esne gordinaren produkzio eta trazabilitatearen baldintza higieniko-sanitarioen kontrol ofizialerako programa nazionala

Programa horren xede nagusia osasun publikoa eta kontsumitzaileen interesak babestea da. Horretarako, etengabe bermatzen du **behi-, ardi- eta ahuntz-esne gordinaren produkzioari eta trazabilitateari** buruzko Europar Batasuneko eta Espainiako arauak betetzen direla, ustiaketatik hasi eta produkzio-lerrora arte.

**Behi-, ardi- eta ahuntz-esne gordinaren produkzio eta trazabilitatearen baldintza higieniko-sanitarioen kontrol ofizialerako programa nazionala**

**Elikagaien elikakatearen KONTROL OFIZIALARI buruzko kontzeptu orokorrak**

**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 . **berri@elika.eus**

**Multilingual WordPress**
with WPML